


ALBE

# BERTSO AGENDA


2022 / OTSAILA - MAIATZA




SANTA ESKEA - ABRA SARIA - ESKOLATIK PLAZARA - TXAPELKETAK

**ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA**  
***www.albe.eus***

SARE SOZIALAK

 albe\_bertso

 @albertsolari

 Algortako Bertsolari Eskola

HARREMANETARAKO

Martikoena 16, 2. solairua, 2. bulegoa  
Algorta (Getxo)  
48992 Bizkaia

605704385

albegetxo@gmail.com

Diseinua: KermanDF



- 4** EKITALDIAK
- 7** ASE BERTSOZ EKIMENA
- 8** URIBE KOSTAKO  
BERTSOLARI TXAPELKETA
- 10** ARGAZKI GALERIA

-  *Jaialdia*
-  *Berezia*
-  *Jira*
-  *Txapelketa*
-  *Ase Bertsoz*

## OTSAILA



## BARIKUA

## SANTA ESKEA

**9:00 GETXO**

Aspaldiko ohitura da Euskal Herrian Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, kale-baserrietara kantuan irtetea, koplak eta bertsoak abestera.

Getxon batzen gara aspalditik –askotan Lauaxeta euskaltegikoekin batera– eta udalerriko baserrietara joaten gara, makilak hartuta, koplak zaharrak eta berriak abestera.

Aurten koplak berriak!



- **9:00** Lauaxetan hasi, eta Fadura atze-ko baserrietan kantatu
- **15:00** Algortako Gure Toki jatetxean bazkaldu
- **17:00** Getxoko Bentatik abiatu eta Andra Mari inguruan buelta

Bazkarirako izena emateko epea: otsailaren 1a

## OTSAILA



## BARIKUA

## ABRA SARIA

**19:00 ALGORTAKO AZEBARRI**

Otordua: 8€

**Bertsolariak:**

Maidar ALTUNA (Arrigorriaga)  
 Josu TXOPERENA (Hendaia / Lesaka)  
 Julene ITURBE (Azkoitia)  
 Ekain ALEGRE (Altsasu)  
 Oihan DIAZ (Algorta)  
 Unai ANDA (Ametzaga)

**GJ:** Naroa Torralba



Abra sariketa 2002an sortu zen Euskal Herriko bertsolari gazteei plazarako saltoa ematen laguntzeko, eta ordutik urtero jokatu ohi da Getxon.

2015ean, ALBERen 35. urteurrena dela eta, sariketa berezia egin zen eta ordura arteko txapel-dunek makila jokatu zuten.

Dagoeneko otsaileen egonkortuta dagoen saioa da, eta azken urteetan afalosteko formatuan jokatu izan da.

OTSAILA

19

BARIKUA

## ALBETI BAT EGUNA

**14:30** ALGORTAKO AZEBARRI

**BAZKARIA: 15€**

Aurten lehenengoz egingo dugu. ALBEegun moduko bat izango da, neguko ALBEguna, zelanbait, eta otordu baten inguruan ardaztuko da. Bazkalaurretik bertso poteoa egitea da asmoa, eta bazkalostean ALBEko bertsolarien arteko bertso jolasak, bertso ariketa bereziak, bertso paperak, bertso sorpresak...

Animatu bertso dinamika dibertigarri hone-tan parte hartzera!



2021ko ALBEguna Leioan / albe.eus

APIRILA

30

ZAPATUA

## BERTSO BAZKARIA

**14:00** ALGORTAKO PATXEKO  
TABERNA

**Bertsolariak:**

Saioa ALKAIZA

Amets ARZALLUS

Bertso otordu honi 'klasikoa' deitu ohi diogu, tematikotik bereiztearren, baina funtsean bertso bazkari edo afari tradizionala dugu.

2020an pandemiak online egitera behartu gintuen, eta ikaragarri gozatu genuen Aitor Mendiluzeren eta Jone Uriaren bertso bazkari birtualean.

Aurten mahai bueltara itzuliko gara, eta zurekin partekatu gura genuke plazer handi hori.



2019ko bertso afari klasikoa / albe.eus

MAIATZA

8

DOMEKA

## KANPOMARTXO



**13:00** ERANDIO

Erandioko Berbots talde euskaltzaleak egindako lan handiaren fruitu duzue egun osoko erronomia hau. 1994. urtean berreskuratu zuten euskaldunak eta euskaltzaleak batzea helburu zuen ospakizuna.

Ordutik huts egin barik egiten da, Erandioko auzoetan txandaka, eta bertsoa ez da inoiz falta izaten, ALBEkook BERBOTSekoekin daukagun harreman sendo eta historikoari esker.

Aurtengoa ere ez da makala izango!

**Bertsolariak:**  
Oihana IGUARAN  
Imanol URÍA

MAIATZA

19

EGUENA

## ESKOLATIK PLAZARA

**10:00** AREETAKO ANDRES ISASI  
MUSIKA ESKOLA

Tradizio luzeko saio honen helburua Getxoko ikastetxeetan urtean zehar bertsolaritza ikasten diharduten ikasleei bertso plaza erreala-  
ren panoramika eskaintzea da.

Ekitaldian eliteko bertsolariak eta harrobikoak elkarren ondoan aritzen dira, bertsolaritzako ikasleak hartzaile zuzen eta protagonista dira.

Nahikari Ayo bertso irakasleak koordinatzen ditu ikasle taldeak.



Unai Mendiburu eta Alaia Martin 2018ko Eskolatik Plazaran

**Bertsolariak:**  
Andoni EGAÑA  
Kerman DIAZ  
+ ALBEko bertsolari gazteak

# ASE BERTSOZ

ALGORTAKO AZEBARRI ELKARTEAN



BERTSO PIKOTEOA  
ALBEKO BERTSOLARIEKIN

## HILEKO AZKEN OSTEGUNETAN

ALBEren eta AZEBARRIren arteko elkarlanetik sortutako bertso ekimen hau 2019an sortu zen. Orduetik hilean-hilean egin ohi dugu ASE BERTSOZ izeneko bertso dinamika hau Azebarri kultur txokoan. Pikoteo arin baten aitzakian, bertsoan aritzen dira ALBEko bertsolariak, gai edo egoera batetik abiatuta.

Kantari zein entzule har daiteke parte saio bizi, umoretsu eta mamitsu honetan. Eder to pasatzen dugu, baina zuk zeuk frogatzea duzu onena!



**24** OTSAILA

**28** APIRILA

**26** MAIATZA

MARTXOA



BARIKUA ERROMO

URIBE KOSTAKO  
BERTSOLARI TXAPELKETA

KANPORAKETAK

18:30 BILLARES BARRIA

19:30 BERRIRO TABERNA

20:30 TOPA TABERNA



## TXAPELKETAREN NONDIK NORAKOAK

**B**ueltan da Uribe Kostako Bertsolari Txapelketa. Beste hainbeste ekitaldi bezala, pandemiak eragindako eten behartuaren ostean, 2022ko udabarriarekin datorkigu berriro gure eskualdeko bertso-hitzordu garrantzitsuenetako bat.

Txapelketa ugari izan ohi dugu, urteak joan urteak etorri, baina ezin ukatu UKBT berezia dela. Etxekoa delako, hurrekoa, eta jai giroan burutzen dugulako. Txikia izanagatik, tradizio handikoa da eskualdeko txapelketa. Bizkaiko Txapelketaren hastapenetan bertan du jatorria. Izan ere, 1959an jokatu zen Bizkaiko bigarren txapelketarako sailkapen moduan antolatu baitziren eskualdeetako txapelketak, eta 60ko hamarkadan segida izan zuten.

2000. urtean berreskuratu egin ziren eskualdeko txapelketak, aro berriko Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen fase moduan. Gure eskualdeko bertsolariek Ipar Uribeko txapelketan parte hartzen zuten,

harik eta 2010ean lehen aldiz Uribe Kostako txapelketa antolatu zen arte.

2016an Bizkaiko txapelketaren sailkapen fasea sortu zen eta eskualdeetako txapelketen eraldaketa eragin zuen, eta gaur egun ezagutzen dugun moduan egitea ahalbidetu zuen.

2020ko etenaldiaren ostean, indar betean dator UKBT lau urte geroago. 25 bertsolari ariko dira txapela lortzeko lehian. 6 kanporaketa, 3 finalaurre eta finala izango dira. Kanporaketa eta finalaurreak formatu txikian jokatuko dira; 4 bertsolariko saioak izango dira, lagun arteko giro epelean. Eta finalean 6 bertsolari ariko dira, nor baino nor, txapelaren bila.

Gurean bertso-ekosistema ugaria eta sendoa dugu. Horren erakusgarri da, bertsolariez gain, jende asko arituko dela gai-jartzaile, epaile eta antolatzaile taldeetan, dena bikain atera dadin lanean. Eta, zelan ez, bertsozale tropela ere batuko da txapelketaren bueltan. Zu ere gonbidatuta zaude, zatoz!



## MARTXOA



**BARIKUA** GORLIZ

**URIBE KOSTAKO  
BERTSOLARI TXAPELKETA**

## KANPORAKETAK

**18:30** NEW TAVERN

**19:30** XURRUT TABERNA

**20:30** PORTALENA TABERNA Baieztatzeko



## APIRILA



**ZAPATUA** ALGORTA

**URIBE KOSTAKO  
BERTSOLARI TXAPELKETA**

## FINALERDIAK

**13:00** SANIKO TABERNA

**17:00** VILLAMONTE TABERNA

**18:00** PATXEKO TABERNA

## FINALA

**21:30** ALGORTAKO AZEBARRI



2018ko finala Sopelan / albe.eus



BERTSO SAIO TEMATIKOA 2021





ALBE GALA 2021



HITZAREN DANTZA 2021



